

JAKINTZAK ETA MUGIMENDUAK ELKARRIZKETAN EUSKAL HERRIAN

LANTEGIAREN MEMORIA

Hondarribia, 2013ko azaroaren 9-11



Lima, 2013

Programa Democracia y Transformación Global

Jr. 6 de Agosto 838 interior E, Jesús María, Lima, Peru.

Telefonoa: +51-1-7153450

Faxa: +51-1-7153451

E-mail: info@democraciaglobal.org

www.democraciaglobal.org

EDIZIOAREN ARDURADUNA Agustina Daguerre.

EDIZIORAKO LAGUNTZAILEAK: Leire Ibarguren eta Iosu Labaka.

PROZESUAREN KOORDINAZIOA: Raphael Hoetmer, Mar Daza eta Nicola Foroni.

PEDAGOGIA TALDEA: Nicola Foroni, Elna Abad eta Juan Carlos Giles.

PEDAGOGIA TALDEAREKIKO LANKIDETZA: Leire Ibarguren, Iosu Labaka, Jone Etxeberría, Anjel Estensoro, Asier Izagirre, Inmanol Lizardi, Txema Mujica eta Olatz D. C.

PERUKO ANTOLAKETA TALDEA: Raphael Hoetmer, Agustina Daguerre, Elna Abad, Juan Carlos Giles eta Jenny Nureña.

EUSKAL HERRIKO ANTOLAKETA TALDEA: Nicola Foroni, Leire Ibarguren, Iosu Labaka eta Arantxa Ruíz de Larrinaga.

EDUKIA

- Sarrera
- Aldundiaren aurkezpena
- Helburuak
- Metodologi bidea

Lehen eguna: azaroak 9

1.1 Aurkezpena: Nor gara?

1.2 Gure itxaropenak antolatzen

1.3 Kutxa magikoa

Bigarren eguna: azaroak 10

2.1 Hegazti-gripea

2.2 Artzain-jokoa

2.3 Kalea zeharkatu

2.4 Elkartasunezko aulkiak

2.5 Cholo basketak

2.6 Denboraren lerroak

3.1 Termometroa

3.2 Gure estrategiak

3.3 Gure mugimenduak - Calle 13

3.4 Mugimenduen zerrenda

3.5 Marmarra-Indar ideiak

3.6 Mamizko ebaluazioa

- Partaideak

Hirugarren eguna: azaroak 11

SARRERA

Hauteskundeetan Gipuzkoan BILDUK garaipena lortu ondoren, herri partaidetza zuzenaren alde egiten duen gizarte eraikuntzarako proiektu inklusibo bat lantzeko eta zehazteko aukera sortu da. Testuinguru honetan, Jakintza eta Mugimenduak Elkarrizketan prozesua hasteko ideia agertu da, bi erakunde perutarrek, Programa Democracia y Transformación Global (PDTG) delakoak eta El Huerto de Nuestra Amada hezitzaile-kolektiboak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzarekin egindako aliantzari esker.

Jakintza eta Mugimenduak Elkarrizketan honek loturak eta gizarte-ehunak sendotu nahi ditu Gipuzkoako eragileen artean, indar berezia jarriz gizarte mugimenduen arteko artikulazioan, agenda eta estrategia partekatutak eraikitzearen.

Jakintzaren eraikuntza kolektiboak analisi zehatzagoak sortzen ditu, egokiagoak gainera ekintza eta agenda politiko eraldatzaile partekatu bihurtzeko. Prozesu hauek aukera ematen dute partaideen artean afektuzko loturak, eta lotura politikoak, sortzeko, eta horiek guztiak funtsezkoak dira mugimenduen arteko artikulazio eta sekzioartekotze ahaleginetan.

Gizarte mugimendu indartsu eta elkarri lotuen presentzia funtsezkoa da, behetik eta modu integral batean politika egiteko eta gizartea eraikitze modu berri bat sortzeko. Gainera, gizarte zibil antolatu batek mugatu egin ditzake aldaketa-prozesuetako inpaktu negatiboak euskal lurralde historikoan.

Joan zen azaroaren 9an aukera izan genuen Euskal Herrian borroka eta gizarte eraldaketarako hainbat mugimenduren 50 ordezkari baino gehiago gure artean izateko. Espero dugu jarduera hau hasiera besterik ez izatea, Euskadi sendoago, konektatuago eta elkartasunezkoago bat sortzeko gizarte aldaketa eta justiziarako proposamenen arteko hurbiltze prozesu zabalarentzat.

PDTG taldea



Lima, 2013ko otsaila

Presentación de la Diputación de Gipuzkoa

Hola, buenas tardes a todos y todas, es alegre habernos juntado aquí esta tarde tantas personas de diferentes asociaciones y movimientos. Tenemos entre nosotros a Juanca y Elna de Perú, ellos son miembros

de la institución “Programa Democracia y Transformación Global”. El PDTG es un centro autónomo de investigación y acción política, desde

donde se busca potenciar las luchas por un Perú nuevo dentro de un mundo nuevo.

Hacen un buen aporte y han desarrollado una interesante experiencia con los movimientos en Perú.

La Diputación de Gipuzkoa está trabajando en esta legislatura con el objetivo de lograr una nueva Gipuzkoa. Queremos desde esta institución aportar a la transformación social del territorio, implantando un sistema fiscal más justo, fortaleciendo la política social, haciendo política de otra manera.... Creemos que compartimos ese objetivo, la transformación social, con los movimientos sociales cada uno trabajando desde su lugar.

Conocemos bien la distancia que existe entre la ciudadanía y las instituciones, sin embargo y teniendo en cuenta que en este momento trabajamos por el mismo objetivo, creemos que es el momento de plantear cosas nuevas, que es el momento para re pensar y re construir esas relaciones, y pensar también en futuras colaboraciones.

Pero ese no es el objetivo de este encuentro, el objetivo de este encuentro es basándonos en la experiencia realizada en Perú abrir un espacio y una oportunidad para que los diferentes movimientos se conozcan de otra manera y fortalezcan sus relaciones.

Arantza Ruiz de Larrinaga,

Directora de la Dirección Foral de Participación
Ciudadana



Aldundiaren aurkezpena

Kaixo arratsaldeon guztiei, pozgarria da gaur hemen elkartzea elkarte eta mugimendu desberdinetako horrenbeste pertsona. Gure artean ditugu Juanca eta

Elna perutarrak, beraiek “Programa Democracia y Transformación Global” erakundekoak dira. Peruko erakunde horrek batez ere trebakuntzan, ikerketan eta ekintza politikoan jarduten du hango borrokak potentziatzeko. Azken finean beraien helburua mundu berri batean, Peru berri bat lortzea da. Ekarpen polita egiten dute eta esperientzia interesgarria garatu dute Peruko mugimenduekin.

Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoa berria lortzeko lanean ari da legegintzaldi honetan. Gipuzkoa eraldatzeko gure ekarpena egin nahi dugu erakunde honetatik, fiskalitate justuago bat ezarriz, Gizarte Politika indartuz, politika beste modu batean eginez..

Herri mugimenduarekin helburua konpartitzen dugula uste dugu, gizartea eraldatzea, bakoitzak bere esparrutik lan eginez.

Jakin badakigu denok, herritarren eta erakundeen artean dagoen distantzia eta orain momentu honetan, helburu bera edukita, iruditzen zaigu gauza berriak planteatzeko momentua dela, berriz ere pentsatzeko harreman horiek nolakoak izan behar duten eta ikusteko etorkizunean elkarrekin zer egin daitekeen.

Dena den gaurko helburua ez da hori, gaurko helburua da, Peruko esperientzia hori oinarri hartuta, espazio

eta aukera bat zabaltzea hemengo mugimenduak elkar ezagutu eta elkarren harremanak sendotzeko.

Arantza Ruiz de Larrinaga,

Herritarren Partaidetzarako zuzendaria





HELBURUAK

Ekarpena egitea mugimenduen arteko loturak sendotzeko, identitate eta diskurtso partekatuak eraikitzeke, eta agenda eta estrategia kontzertatuak prestatzeko, oro har Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan aldaketa prozesuari ekarpena egitearren.

- Elkarrikeria prozesutik eragitea lurralde historikoko eztabaida publikoan, eztabaida horren gai hartuz honakoak: aldaketa prozesua eta honen irismen eta mugak, behetik hasita

kultur eta gizarte aldaketak eraikitzeke beharra, eta prozesu berean antolatutako gizarte zibilaren rola.

- Metodologiak garatzea ezagutzaren eraikuntza kolektiborako, praktikatik ahalbidetuz jakintza eta praktika desberdinen arteko ezagutza, trukea eta elkarrikeria, paradigma berriak eratzeko unean gizartearen partaidetza estrategiko eta zuzena dakarten mugimenduak ere kontuan hartuta.

METODOLOGI BIDEA

Lehen eguna: azaroak 9

- **Nor gara?** Txartel bidezko aurkezpena
- **Aldundiaren aurkezpena.** Prozesuaren zentzua.
- **Gure itxaropenak antolatzen**
- **Kutxa magikoa.** Besteen arabera geure berrirakurketa eginez.

Bigarren eguna: azaroak 10

- **Hegazti-gripea.** Ludikoa integrazioan.
- **Artzain-jokoa.** Deszentralizatzen ikasten.
- **Kalea zeharkatu.** Diskriminazioa norberaren larrian.
- **Elkartasunezko aulkiak.** Kooperazioa

eraldaketan.

- **Cholo basketa.** Gure gorputzak eta gogoak erlaxatzen.
- **Denboraren lerroak.** Gure historia pertsonala

eta antolaketa-historia.

Hirugarren eguna: azaroak 11

- **Termometroa.** Zer jarrera hartzen dut borroken aurrean?
- **Gure borroka estrategiak.**
- **Gure mugimenduak- Calle 13.** Gure antolaketa-identitateak eta beste

borroketakoak.

- **Mugimenduen zerrenda**
- **Marmarra-Indar ideiak.** Zer daramagu topaketatik? Norantz doa prozesua?
- **Mamizko ebaluazioa.** Beste lengoaia batzuk ebaluatzen.

Lehen eguna: azaroak 9

1.1. Aurkezpena: Nor gara?

Nire izenaren historia

Nire bizitzako eslogana. Zerk bultzatzen ditu nire bizitzako ekintzak?

Nire borrokatik harro sentiarazten
didana

Zer espero duzu topaketa
honetatik?

Metodologia

Helburua: Partaideek elkar ezagutzea, aurkezpen formal hutsetik haratagoko datu pertsonalak partekatuz horretarako.

Deskripzioa:

- *Banakako lana:*

1. Partaide bakoitzak (bideratzaileak barne) kolore desberdineko lau txartel jasotzen ditu.
2. Txartelaren kolorearen arabera, marraztu edo idatzi egiten dute, labur, adierazitako informazioa.

- *Binaka hitz egin beste batzuekin:*

3. Partaideak motibatu egiten dira, aretoan ibil daitezen, musika entzuten dutela, aurkitzen dituzten pertsonak agur ditzaten eta adierazten dietenaren arabera elkar daitezen:
 - a. Txartel arrosak hartzea eskatzen zaie (1. galdera), ibil daitezela eta 3-5eko taldeetan elkartu, afinitateetatik edo atentzioa ematen dien zerbaitetatik abiatuta, edo, besterik gabe, gurutzatzen diren pertsonekin elkartu daitezela. Hitz egin ondoren berriro ibiltzen hastea.
 - b. Txartel urdinekin (2. galdera) errepikatzen da, hitz egin eta ibiltzen segitzea.
 - a.
 - c. Txartel horiekin (3. galdera) errepikatzen da, baina oraindik ezagutzen ez ditugun pertsonekin, ez errepikatzen saiatuz; hitz egin eta ibiltzen segitzea.
 - d. Elkar apenas ezagutzen duten, edo ezagutzen ez duten, bost pertsonako taldeak egin, txartel berdeari buruz (4. galdera) hitz egin eta aukeratu edo erregistratu taldeak adostutako itxaropen edo aukera bat edo bi. Aukera bat, txartel bat.

- *Horma-irudia eraikitzea:*

4. "Nire bizitzako eslogana" txartela ebaki eta itxuratu. Txartela horma-irudi kolektiboan itsatsi, horretarako "puntu" aukeratuz norbera sentitzen den, eta beste pertsonetik ere sentitzen den moduaren arabera.

- *Osoko bilkura biribilean-Hausnartzea:*

5. Biribilean jarririk, eskuin aldeko pertsonarekin bikotea osatuz, ondoko galdera hauetako bat banatzen da, honela:

- Nola sentitzen gara?
- Zerk ematen digu gehien atentzioa?
- Zer ikasi dugu?
- Zer harreman du jarduera honek mugimenduen arteko elkarrizketekin?

6. Osoko honetan, bikote bakoitzak berea aurkezten du, hitz batez edo, gehienez, hitz pare batez islatzen saiatuz, bi pertsonak papertzarrean erregistratzen dituzten bitartean hitz klabeak.



Bizitzako esloganak

Libre izan, libre bizi	Dena sentituz bizitzea	Zoriona, justizia eta borroka	Amets egitea eta batez ere zure ametsak bizi izatea	Egunerokoa disfrutatzen saiatu
------------------------	---------------------------	----------------------------------	---	-----------------------------------

Bizitza laburra da, gozatu eta bizi ezazue!	Irribarrez bizi	Bizitzan zoriontsu izatea, nire ingurukoei zoriontsu izaten laguntzea eta nire ahalegintxo egitea mundua hobea izan dadin	Gauzen alde ona aurkitu	Eraiki
Aldaketak gauza txikietatik hasten dira	Edozein egoeratik abiatuta ikas eta eraiki dezakegu. Kolektiboa eraiki	Beti lagundu	Pertsona ona	Zure inguruan kritikarik egiten dizunik ez baduzu, ez duzu lagunik
Gauzak ondo egin, ulertzen ez badizute ere	Beti aurrera	Erori altxatu, erori altxatu... ibili eta ibili beti mugimenduan, beti aurrerantz	Elkarrekin egin dezakegu	Zeure buruarekin zintzo jokatu eta aurrera
Ibiltari, ez dago biderik, bidea oinez ibiltzean egiten da	Jende apal asko gauza apalak egiten	Herri apal askotan gauzak aldatzen ari dira	Jo ta ke! (euskal esaera)	(gerokoak gero) (euskal esaera)
Ezinezkoa lanez egiten da, baina bizitza lasaitasunez hartuta	Hegan egin behar da	Ekintzailea zergatik? Tratu txarrak desaktibatzeko: Gurasoak ondo egon daitezela seme-alabak gaizki trata ez ditzaten eta bakoitzak bere bidea libreki bizi ahal izan dezan, anai-arrebek elkarri tratu txarrik eman beharrik ez izateko eta aitona-amonak zoriontsu gaixotu ahal izan daitezen	Libre izateko, besteek ezarri nahi dituzten rol eta identitateek zapal ez nazaten, neuk erabakitzen dut!	Egunez egunekoaren garrantzia

Zaldi hegalduna (marrazkia)	Eman egurra Manoli!	Aurrera bolie (jendeari borrokan segitzeko bultzada emateko euskal esaera)	Bizitza maite, gozatu, gure integritatea errespetatuz.	(...)
--------------------------------	---------------------	--	--	-------



Osokoa aurkezpenaren ondotik

Zer sentitzen
dugu?

Lasaitasuna, mina.
Zer dute pertsonak
gogo-barnean?, Zailtasunak?
Urduritasuna, tentsioa.

Ez dago minik, positiboa.

Perun banengo bezala
Gustura.

Jendea eta dituen itxaropenak ez
ezagutzeagatiko beldurra.

Jesuitek Ekuadorren erabiltzen
zuten. Aberatsa. Ustekabea,
sistema berria, harremanei
beldurra.

Hauxe espero genuen, errazagoa
da.

Zerk eman zigun
gehien atentzioa?

Idea ona da mugimenduen
ARTEAN aurreiritziak saihesteko.

Ohitura falta.

Teknika berria.

Erosotasuna.

Urduritasuna hasieran,
lasaitasuna gero.

Kontrakoa esango nuke:
dinamika honetan gauza
pertsonalez hitz egin dugu, asko
pertsonalizatu dugu.

Formalismorik gabe ... Hainbat
jatorritako jendea izan da.

Aurpegi ezagunak.

Zer ikasi
genuen?

Zaila da.

Tokirik aurkitu ezinda.

Ohitura falta.

Interes kolektiboa.

Partekatzea.

Metodologia berria.
Egokia, erraza,
baliotsua, positiboa.

Mugimenduen arteko elkarrizketarekiko erlazioa

Positiboa izan daiteke pertsona gisa agertzea mugimenduen arteko elkarrizketarako.

Pauso berriak mugimenduek elkar ezagutzeko, asmoak errekonozitzeko.

Mugimenduen arteko harremana beste elkarrizketa modu bat da, ez soilik 5 edo 6 pertsonaren artekoa.

Balioak

- Ez epaitu
- Euskal Herriko mugimenduen historia luzea da
- Begirunea
- Ikastea
- Apaltasuna
- Lo egitea
- Errepikapenak saihestea
- Ikusten ez dena ikusgarri egitea

- Elkarrekiko mendekotasuna
- Ezagutza
- Talde lana
- Hau ez da hemen hasi
- Ez gara hutsetik hasi
- Ausardia
- Elkar ezagutzea
- Zuen mugikor aluak itzali, arraioa
- Kolektiboak gonbidatzea

- Pluraltasuna
- Mugimenduen arteko topaketako zailtasunen kontzientzia izatea
- Entzutea
- Immigranteak ez dira sekula garaiz iristen ez diren bakarrak
- Biodibertsitatea bultzatzea

[illegible]

Helburua: Partaideek topaketarekiko dituzten itxaropenak antolatzea eta ezagutzea.

Deskripzioa:

- *Osokoa:*
 - a. Partaideek irakurri egingo dituzte elkarrekintzan aritu ziren azken taldean adostutako itxaropenak.
 - b. Talde bat itxaropen bat irakurtzen hasi eta lurrean jartzen du; beste taldeek antzeko itxaropen bat badute irakurri eta aurrekoarekin jartzen dute.
 - c. Itxaropenak irakurtzen jarraitu eta antzekoak elkartzen dira, itxaropen taldeak osatuz horrela.
 - d. Denen partaidetzarekin, itxaropen multzoei izena ematen zaie.
 - e. Ondoren itxaropen taldeak itsatsi eta, bere izenekin, aretoko horma batean jartzen dira.
- Aurreko guztia amaitzean, honakoa galdera: Partaidetza sustatzeko zer irizpide edo printzipio aipa ditzakegu?

Esperientziak partekatuz ikastea, pertsonengandik, ideietatik.

Borroka

Jendea ezagutzea: trukatzeta eta ikastea

Borroka berean partaide garelako konturatzeta,

sareak sor daitezkeela ikuste eta eremu eta dimentsio guztiak ezagutuz gu geu sendotzea.

Denon artean zerbait eraikitzea/sortzea; elkarrekin lan egitea, talde gisa.

Trukerako eta talde lanerako tresnak (sareak) geureganatzea.

Elkar ezagutzea, adiskidetasun giroan, eta alaitasunez sortzea: "maitasunez haztea eta heztearen zuen, gure borrokan, denon borrokan.



1.3 Kutxa magikoa

Metodologia



Helburua: Parte hartzen duten instituzioen agendak ezagutzea eta horietako bakoitzaren berrirakurketa ahalbidetzea, besteen begiradatik abiatuta.

Deskripzioa:

- *Osokoa denak biribilean jarrita:*
 - a. Kolektiboetako partaideek objektu bat aukeratzen dute, aretoko alde batean daudenen artetik, kolektibo gisa zer diren adierazteko.
 - b. Partaide guztiek biribil bat egiten dute lau mahairen inguruan, eta kolektibo bakoitzeko kideek mahai gainean jartzen dute aukeratutako objektua, zergatik aukeratu duten eta jarri duten tokian zergatik jarri duten adieraziz.
 - c. Kolektibo guztiek bere objektua aurkeztu dutenean, ikusten dutenaren irakurketa bat egiten dute, kontuan hartuz nola ikusten duten bere burua eta nola ikusten dituzten irudikatu diren harremanak, hurbiltasuna, distantzia, afinitateak, zein dauden presente, etab.
- Sortutako gogoetak txarteletan jasotzen dira une horretan bertan, eta mahai gainean lagatzen; ondoren paretan itsasten dira.



“Kolektibo bakoitzak bere panpina aukeratu eta toki batean jartzen du. Azaldu behar dugu zergatik aukeratu dugun aukeratu duguna eta zergatik erabaki dugun leku zehatz batean jartzea.”

Anbulantzia: Ez gara berdintasunezko gizarte batean bizi eta *immigranteek* arazo handia dute osasunarekin.

Anfibioa: Gure borroka zeharo dago osasunera eta *ingurumenera* bideratuta. Anfibio honek kutsadura eta ingurumenarekiko sentzibiltate handia irudikatzen du

(Fracking ez Araba). Gure kolektiboaren jarrera gure lurra defendatzeko erne egotea da.

Tximinoa eta jirafa: Oso desberdinak diren arren, elkarrekin egin behar dute lan. Gure kolektiboa [giza eskubideen](#) eta elkarbizitzaren arloan aritzen da. (bakeola)

Panpina: Eskuen jarreragatik. Guretzat oso garrantzitsua da beste batzuekin lan egitea, [harreman horizontala](#) izatea bezalaxe. Helburua denontzako mundu justua da, eta horregatik beste guztietatik hurbil jartzen gara.

Emakume irribarretsua: [Feminismoaren](#) aldeko mugimendu urratzailea eta zoriontsua gara. Ertzetan jartzen gara, aldaketa gidatzeko ertz guztiak kontuan hartu behar direla uste dugulako. (Bilgune Feminista)

Ontzi urdina: Gure kolektiboaren kolore berekoa. Jende askoren borondateari atarramentu ona eman nahi diogu, eta kandela bat ere badu, argi berri bat piztu eta falta den jende asko etxera ekartzeko. ([Herrira](#))

Olagarroa: Panpina hau aukeratu dut [Elkartzen](#)-erako: eskubideen alde borrokatzeko eta gizartea eraldatzeko hanka asko behar dituen gorputz baten ideia, garroen mugimenduan sinbolizatua.

Giltzarik gabeko giltzarrapoa: Itxita dagoelako aukeratu dut, hain zuzen ere. [Memoria historikoaren](#) aldeko mugimendu batean nago, eta iruditzen zait trantsizioak gauza asko itxita laga zituela, eta giltza falta zaigu (esparru juridikoan batez ere) arazoak konpontzeko. Baina memoria ondo gorde behar dela ere sinbolizatzen du, beharrezkoa delako herriak garatu ahal izaten daitezen. Uste dut edozein tokitan jar naitekeela, baina gure azken lana memoria historikoaren ingurukoa denez eta emakumeen papera aipatzen duenez (beti ezkutu samarrean egon baita), hemen jartzen gara.

Pertsona indigena: estereotipoz betea. [Mugarik Gabe](#) GKEan parte hartzen dut: genero berdintasuna lantzen dugu, ikuspegi feminista batetik, eta baita elikadura-subiranotasuna eta indigenen eskubideen defentsa ere. Herri indigenek jasaten dituztenez ingurumena gaizki tratatzeak dituen ondorio negatiboak, Fracking Ez Araba-ren ondoan jartzen gara.

Dortoka: Egiten dugun lana denbora asko behar duen eta aurrera oso motel egiten duen lana da. Gure helburua [hezkuntza sistema berria](#) sortzea da, pertsonengan beste balore batzuk garatzearren. Beste alderdi guztiekin zerikusia duenez, erdian jarri dugu. (urtxintxa)

Arrautza: Dortoka aukeratu nahi genuen, bidea luzea dela-eta poliki goazela esan ohi dugulako. Azkenean arrautza hau aukeratu dugu, azkenean dortokak ere arrautzetatik jaiotzen direlako. Gure helburua [partaidetzan](#), militantzian gaizki ikusten dugun guztia baztertzea da (beldurra desagerraraztearren) eta, bestetik, proiektu txikiak sortzea. Erdian jartzen gara, jakin badakigulako borroka aspaldi hasi zela, eta haiek hasitakoarekin jarraitu nahi dugulako.

Bizikleta: [Joxemi Zumalabe](#)-tik bizikleta bat aukeratu dugu, gure helburua auto-antolaketarako beharrezko tresnak sortzea eta eskuratzea delako. Bizikletak, hain zuzen ere, horixe irudikatzen du, pieza asko dituelako, akastunak horietako batzuk, eta kolorez desberdinak. Gainera, pedalei etengabe eragitea eskatzen du. Mugimenduan jartzen dugu, bai ertzetatik bai erdian, bidaiatzeko aukera emanez.

Bizikleta: Euskal Herriaren subiranotasunaren alde ari den [Auzolan](#) ekimenetik nator. Etengabe mugitzen ari den bizikleta bat da halaber, eta erraza da bertan ibiltzen. Osterantzean, bizikletak argindarra sor dezake.

Mastodonte: [Gipuzkoako Foru Aldundiaren](#) izenean, mastodonte hau aukeratzen dut, oraindik bizirik baitago, krokodilo forman bada ere. Oso motela dela pairatzen dugu, baina oso makina sendoa da, eta eraso egin dezake. Uste dut haragijalea dela, eta

horrexegatik aukeratu dut hain zuzen. Maitekorra izaten ere badaki. Ez dakigu non jarri, zeren eta instituzioa izanik seguruenik erdian jarri nahi lukeen arren, oso zaila baita lekua aukeratzea. Zeuek aukeratu.

Figuratxo gorria: Nire erakundea gorritz dago, lan erreforma batengatik. Enpresetan gertatzen dena oso ongi ikusteko betaurrekoak ere badauzka. Esku irekiek ere atentzioa ematen didate, jendearekin hitz egiten eta horien eskubideak defendatzen saiatzen delako. Neska bat ere bada, emakumeak direlako lan esparruan okerren daudenak. Beste guztietatik hurbil jarriko dut. ([ELA sindikatua](#)).



Snoopy: Imanolekin Snoopy eskidun hau aukeratu dugu. Azken urteotan zehar oso jauzi garrantzitsua eman dugu beste *metodologia* batzuetatik. Hezkuntza sistema aldatu nahi genuke, gizabanakoarengan oinarritutako sistema baterantz.

Llama: Ni duela denbora bat *Perun* kolaboratzaile izan nintzelako nago hemen. Hau aukeratu dut alderdi biak ordezkatzeko dituelako, ez nekien ardi latxa bat edo llama bat zen.

Kutxatxoa: Guk badugu guztiokin partekatzeke zerbait. *Immigranteen* defentsarako *Harresiak Apurtuz* koordinakundetik nator. Zerrenda asko dituen kutxatxo hau aukeratu dut; zerrenda guztiak zirkulu berera iristen dira, eta horrek gure iritziz esan nahi du dibertsitatea helburu berera iristen dela. Zarata egiten duten bolatxoek borrokak erakusten dituzte, helburuak, etengabeko mugimenduan. Aldi berean, denoi eragiten digute.

Txita: Uste dut oso txiki eta ahula dirudien zerbait dela, bizirik segitzen dute baina. Nire ustez, *herri mugimenduekiko* harreman bat dago honetan. Kolektiboen artean zubiak eraiki behar ditugu.

Zapata: Bidaiaren sinboloa da. Gure *dinamizazio* lan militantea bidaia bat bezalakoa da, etengabe mugitzen gara, lurra zapaltzen dugu. Prozesu horretan eraginak jasotzen ditugu, eta gure eragina uzten dugu, buztinean bezalaxe. Non kokatu zaila da erabakitzen, figura guztiek bidaia aipatzen baitute, mugimendua. Une honetan sintonia argiagoa da indigenekin, immigranteekin, ontzi, llama-ardi, dinosauroarekin... Bi kolektiboren parte gara.

Arrautza: Eraikuntza prozesuan gaudelako. Hemengo *emakumeengana* gehiago hurbildu nahi dugu, elkarrekiko errekonozimendu batez. Une honetan Bilguneko neskekin ari gara lanean, horregatik jartzen gara beraingandik hurbil.

Playmobil klipa: Panpina hau antiheroi bat da, akastuna. Ez naiz inongo kolektibotakoa, baina horien lana defendatzen dut, batez ere *ikusgarritasun txikienekoak* diren kolektiboena. Ez dago heroirik, eta herren daude, panpina hau bezalaxe. Hemen jartzen dut, Aldundiak herriaren ideiak behar dituelako, ideia horiek gabe ez dago eta ezer egiterik. Herriak izan behar du Aldundiaren gidari.

“Denon artean komenta dezagun. Ikus dezagun non dagoen bakoitzaren panpina, beste guztiek bereak jarri eta gero.”

- Uste dut denok dugula elkarren beharra.
- Aldundia izaki, instituzionalizatzeko arriskua dugu. Horrexegatik hain zuzen, garrantzitsua da herri mugimenduekin hartu-emanak izatea, gida gaitzaten eta guk iparra gal ez dezagun.
- Ez nuke Aldundia mahai gainean jarriko. Instituzioak, bere funtzionamenduaren eraginez, kolektiboen erritmoaz besteko bat du.
- Ez dut uste instituzioetan lan egiten duten pertsonengatik denik, baizik eta sistemagatik, funtzionamenduagatik.
- Planteatzen ari zarena asteburu osoan zehar eztabaida liteke.
- Berriren bat sartu eta mahaia ikusiko balu, hau guztia zertaz doan jakiteke, ez luke ezer ulertuko. Baina, azken batean, besteengandik ikastea da garrantzitsua, aukeratu dutena zergatik aukeratu duten eta toki jakin batean zergatik jarri duten entzun ondoren.
- Mahaia igandera arte dagoen bezala uztea proposatuko nuke, eta une horretan sentitzen dugunarekin alderatzea.
- Jarraitu dugun irizpidea ez da bera: batzuek gauden tokiaren arabera jarri dugu figura, eta beste batzuek egon nahi duten tokiaren arabera.
- Bakoitza alde batera begira dago, begirada bera, helburu bera erakutsi gabe.

- Zalantza asko sortzen dit mastodonte hau instituzioa sinbolizatzeko jartzeak. Eztabaida klasikoa da herriaren botereari, boterearen kudeaketari buruzkoa... instituzio batean lan egiteak gatazka asko sortzen ditu. Esate baterako, protokoloaren arabera ezin da kaferik egon hau bezalako ekimen batean. Horixe da mastodontean aldatu behar duguna. Beti esan izan dut kolektiboei instituzioekin batera egin behar dutela lan, eta azken hauek hori egiteko nahia izan behar dute. Horixe dugu erronka. Ez dakit mastodonteak horretarako patinete bat edo hegai batzuk beharko lituzkeen, arinagoa izatearren.
- Ez dut hain argi ikusten kolektiboen helburua instituzioak gidatzea denik, ezta lehentasuna ere.
- Helburu bera dugu.
- Egungo sistema ez zaio inori atsegin. Eta baliteke gauzak aldatzeko modu bakarra instituzioak desegitea izatea. Dena suntsitzea aukera bat izango litzateke.
- Herri kolektiboei lagundu egin behar diete instituzioei, baina benetan zerbait aldatu nahi badugu, kutsatuta dagoen sistema baten barnean gaudelako kontzientzia hartu behar dugu. Zerbait lortu nahi badugu, gauzak aldatu behar dira, zaila izan arren.
- Interpretazioaren arazoarekin segitzen dut. Izugarri gustatuko litzaiguke herri mugimenduek

boterea bereganatzea, herri antolatu gisa, bere eskubideen bidez.

- Ez dakit eztabaida hori benetan baden, gu ote garen horretaz arduratu behar dugunak, ezta horretarako leku egokia hau den ere.
- Oso garrantzitsua da botere harremana problematizatzea. Eztabaida klasikoa da, eta niri mahai honek erakusten didan egoera askoz konplexuagoa da gizarte mugimenduaren eta estatuaren arteko harremana baino. Harreman edo erlazio hori bideratze hutsa ez litzateke nahikoa izango, zeren eta gizarte mugimenduen beren artean ere hainbat gatazka baitago: indigenen eta feministen artean, esaterako. Uste dut hau espazio ona dela eztabaida horretarako.
- Eztabaida hau planteatu dudanean, bakar-bakarrik instituzioak eta gizarte mugimenduak bereizi behar direlako egin dut. Ez dut, baina, esan nahi batzuk lagunak eta beste batzuk etsaiak direnik. Bien artean dagoen harreman motari buruzko gogoeta egin behar dugu.

- Azken aldi honetan, ikusten ari naiz eztabaida instituzional handia dagoela, Gipuzkoan batez ere, aldaketa politikoaren inguruan. Gizarte taldeetan joera handia dugu instituzioei buruz hitz egiteko (abertzaleak instituzioetara iritsi dira), eta mugimenduen egoeran gertatuko diren aldaketei buruz. Guk batez ere geure buruari buruz eztabaidatu behar dugu: jendearekin bat egiteko ditugun lanabesez; herritarrak eroso al daude gure lanarekin? Horiek dira erantzun behar ditugun galderak. Gure kezkek apalagoak izan beharko lukete, nire iritziz.
- Garrantzitsua da gizarte mugimenduez pluralean hitz egitea; izan ere, oso desberdinak gara, are gehiago, batzuetan helburu desberdinetarantz ari gara lanean. Hizkuntz esparruan ere, elebitasuna dela eta, mugimendu batzuek batzuen atentzioa erakartzen dute, eta beste batzuen beste batzuek. Zorionez, edo zoritxarrez, mugimenduak era askotakoak dira, eta bakoitzak bere ñabardurak dauzka.



Bigarren eguna: azaroak 10

2.1 Hegazti-gripea

Metodologia

Helburua: Partaideen artean integrazioa sustatzea, jolas jarduera baten bidez. Sistemikoari eta deszentralizatu beharrari buruzko gogoeta bultzatzea.

Deskripzioa:

- Bideratzaileak partaideei azaldu die izurrite bat dagoela pentsatu behar dutela, hegazti-gripea zehazki, eta horrek, une honetan, kolektibitateari eragiten diola, Hegazti-gripea birus baten bidez transmititzen da -birusa eskuan daukan jostailu edo pelutxe batez irudikatzen du-. Kutsatzea saihesteko, partaideek 2 aukera dauzkate:
 - Korrika egitea, pelutxea daukan pertsonarengandik ihes egitea.
 - Beste pertsona batekin elkartzea, kutsatzea gertatzen den gorputz-atala babesteko, bideratzaileak adierazten dienaren arabera.
- Partaideak eremuan zehar doaz korrika, birusak harrapa ez ditzan. Bideratzaileak adierazten die kutsatzea saihestu daitekeela, binaka elkartu eta sabela eta, geroago, ipurdia babesten badituzte.
- Partaideek bikotekide batekin babestea bilatzen dutenean, bideratzaileak galderak planteatzen ditu, parteka ditzaten. Eratatoko bikoteek babestu behar zituzten gorputz-atalen arabera hizpide izan zituzten galderak honakoak izan ziren:
 1. Zer gustatu zitzaion gehien, edo zerk eman zien atentzioa gehien, aurreko egunean? (Sabela sabelarekin).
 2. Zeren falta sentitu zenuen): (ipurdia ipurdiarekin).

2.2 Artzain-jokoa



Metodologia

Helburua: Partaideen artean integrazioa sustatzea, jolas jarduera baten bidez. Sistemikoari eta deszentralizatu beharrari buruzko gogoeta bultzatzea.

Deskripzioa:

- Ekitaldiko bi pertsona gogoan hartzea eskatzen dio partaide bakoitzari bideratzaileak. Partaideek bi pertsonak

aukeratzen dituztenean (ezer esateke ordea), horien tartean jartzea bilatzen dute, lerro zuzenean joanez, bideratzaileak denei adierazten dienean hori egitea. Hiru minutuko denboraren ondoren, gelditzea eta lortu duten ala ez labur ebaluatzea eskatzen die.

- Gero, eskatzen die berriro beste bi pertsona aukeratzea, eta nor diren esan gabe pertsona horiekin hiruki batosatzea; berak dioenean, partaide guztiek egiten dute esana.

“Gogora ditzagun partaidetza ahalbidetzearen atzo ezarri genituen oinarriak.”



Entzutea	Kontziente izatea	Kolektiboak gonbidatzea
Elkarrekiko mendekotasuna	Ausardia	Ez epaitzea
Talde lana	Dibertsitatea bultzatzea	Ikastea
Begirunea	Ongi esnatzea / Ongi lo egitea	Errepikapenak saihestea

“Nola sentitu zarete bi dinamika hauekin?”

- Kontsignak interpretatzea kostatzen zait, uste ut ez dudala ondo ulertu zer egin behar dugun.
- Gustatu zait bigarren ariketan, une batean, denok gelditu egin garela, gure helburua lortu

dugulako.

- Lehen ariketako une batean zalantzak izan ditut, nire helburua lortzeko besteak bultzatu behar nituelako, bestela kanpoan geratu behar nuen eta.

Zerk eman dizue atentzioa bi ariketa hauetan?

- Uste dut bigarren jardueran mugimendu gehiago zegoela, solas gehiago. Ez dut gatazkarik sentitu lehen jardueran, baina bigarrenengan hobeto egokitu eta moldatu naiz.
- Hasiera batean ikusi dugu bakoitza berera zihoala, baina aurrera egin ahala, taldeari arreta handiagoa jarri eta unitate bakar baten eran jardunez gero errazagoa zen.
- Bi pertsonen artean jartzen ginenean, ikusi dugu oso zaila dela. Neure buruari galdetzen diot ea benetan posible den lortzea, are bi orduz ahalegindu eta gero.
- Nik uste dut ez dela posible, zeren eta beti egongo baita besteei eskema hausten dien norbait erdian. Hirukiarekin, aldiz, errazagoa da, azalera bat delako.

- Gogoeta sakonagoa eginez gero, uste dut beste bi pertsonaren artean jartzeak gatazkak sortzen dituela; hiruki bat sortzea, aldiz, egitura egonkorragoa da.

- Orduan, gelditu garenean, tranpa egin dugu, ezinezkoa dela dirudielako.
- Pitinka-pitinka joan gara kontzentratzen, eta ezinezkoa zela konturatzen. Ikuspegi lehiakorretik ere gure asmoa zapuzturik ikusten genuen.
- Matematikaren arabera lerro bat puntu batura bat da. Gu puntuak besterik ez ginen jokoan.
- Gripearean jolasean estrategia aldatu dut: momentu batzuetan beste pertsona baten bila ari nintzen, baina hark korrika egiten zuen. Eta jendea hizketan ere ikusi dut. Bigarren jolasean, pertsona biei aldi berean begiratzerik ez izanik, oso erraz galtzen nituen begi-bistatik. Azken batean, bakar-bakarrik pertsona batekin manten dezakegu harremana.

- Bizitzan oro har jolas gehiago egin behar dugu.
- Bigarren jardueran, helburua lortzean oso sentrazio positiboa izan dut.
- Oso eroso izan da jendearekin hitz egitea, betidanik ezagutzen nituela iruditzen zait eta. Jolasak oso harreman naturalak sortzen ditu.

Uste duzue harremanik badela dinamika hauen eta kolektiboen arteko trukearen artean?

- Beharbada beti ez da posible izango egon nahi dugun tokian beti egotea.
- Lehen ariketan erdira jotzen genuen etengabe, mugitzeko aukerarik gabe.
- Hirukiaren jolasean ere baziren konplikazioak, besteen mugimenduei jarraiki mugitu behar nuelako.
- Lehen jokoan erdian geratu gara, blokeatuta. Hala eta guztiz, hirukiarekin ikusten da, bai, taldeen arteko oreka bilatzen dugula. Zentralizazioa ez da hain garrantzitsua, garrantzitsua oreka mantentzea da.
- Nork bere buruan pentsatzera jo dugu, besteak kontuan hartu gabe eta elkarrekin gehiegi komunikatu gabe.
- Baina ikusten genuen mugitu behar genuela besteak mugitzen zirelako; horrenbestez, bazegoen denon artean komunikazio motaren bat.



2.3 Kalea zeharkatu

Metodologia

Helburua: Zapalkuntza egoera ikusgarriak eta ikusezinak antzematea, partaideek horiekiko dituzten jarrerekin batera.

- Partaideei eskatzen zaie aretoaren mutur batean zutik jartzea eta erabat isilik egotea, hau da, hitz edo barre egin gabe, mugikorrak itzalita, etab. Ondoren, bideratzaileak hainbat esaldi aipatzen ditu banan bana, eta eskatzen du esaldi horiek entzutean nolabait aipatuak sentitzen diren pertsonak aretoa zeharkatzea eta beste muturrean jartzea. Aretoaren alde berean daudenei eta, ondoren, parean dituztenei begiratzea eskatzen zaie.

Bideratzaileak irakurritako esaldiak honakoak izan ziren:

- Areto osoa zeharka dezatela bere bizitzan zehar diskriminatuak izan diren pertsonak, horretarako arrazoiak izan baldin badira, esaterako: *emakumea izatea, hezkuntza maila baxua, maila ekonomiko baxua, itxuragatiko zapalkuntza, gazteegia edo zaharregia izatea, landa jatorrikoa izatea, jatorria, ezintasun fisiko edo mentala, gutxiengo baten hizkuntza edo hizkuntza minorizatua izatea, gaixotasuna, kultura, benetako edo ustezko aukera sexuala, bere ideologia ez-nagusia, bere erlijioa, langabezian egotea; gizakia izatea.*
- Areto osoa zeharka dezatela bere bizitzan zehar diskriminatuak izan diren pertsonak, horretarako lekuak izan baldin badira, esaterako: *eskola, auzoa, bere lana, bere herrialdea, bere mugimendua, mugimendu sozial eta politikoak.*
- Areto osoa zeharka dezatela bere bizitzan zehar beste gizaki bat diskriminatu, umiliatu, ZAPALDU DUTENЕК.
- 3 pertsonako taldeak eginez, hausnarketa egitea, eta iruzkinak, hizpide harturik honakoak:
 - a. sentimenduak arrazionalizatu gabe, teknikaren hainbat unetan: pasatzean, geratzean, norberak bere burua ikustean, etab.
 - b. Zerk eman zien atentzioa teknikaren ezaugarriei dagokienez (isiltasunak, ez ukitzeak, ibiltzeak, bere burua

- eta beste pertsonak errekonozitzeak, kategorien eraikuntzak)
- c. Beste diskriminazio batzuk
 - d. Jardueraren zergatia

Lehen zatia: Sentimenduak eta bizipenak. Nola bizi izan duzue unea, aipatzeko zerbait ba al duzue?

Aldaketa bat izan dut jardueraren barnean, hasieran lotsatu egiten nintzen mundu guztiaren aurrean biluzten ari nintzela sentitzen nuelako. Azkenean kontrakoa sentitu dut, denok beste aldera igarotzen ginenean, ditudan sentimendu horiek erakusteko modu bat zen: *lotsatuta nago, baina besteek ere partekatzen dute zerbait nirekin*. Oso jarduera gogorra izan da. Galdera bat egiten zenean uste nuen ez nuela zeharkatuko baina, iragana gogoan hartzean, zeharkatzea pentsatzen nuen. Negar egiteko gogo handia izan dut. Duela urte asko eta askoko esperientziak gogoratu ditut, oso gauza ilunak ziren nire iraganean, eta horiekin konektatzeak jakin-minezko egonezina sortu dit.

Auto-zapalkuntza bat sentitu dugu. Galderak egitean, gure iraganeko zerbaitetan hasten gara pentsatzen, eta orduan zeharkatu nahi dugu, ihes egiteko modu bat da. *Batzuetan, aurrera egiteko, ihes egiten dugu* eta azkenean negar egiteko gogoia sentitzen dugu, gai batzuekin zapaldu egiten baitugu geure burua, auto-zapalkuntza ariketa bat egiten dugu. Batzuetan, ondo dago gai hauen inguruan gogoeta bat egitea.

Ez dut gauza bera sentitu zeharkatu dudanean eta gelditu naizenean. Gogorrena zeharkatu dudanean beste aldean ni bakarrik egotea izan da, eta pare bat aldiz gertatu zait. Gauza gogor samarra zen, zeharkatu ondoren bakarrik sentitzea. Eta kontrakoa ere bai, ezen beharbada besteren batean ere zeharkatuko nuen, eta “benetan beste aldean egon beharko nuke” pentsatzen nuen. Azken unean denok zeharkatu dugu aretoa, eta neskatoa geratu da, metafora bat izan da, zeren eta azkenean neskatoak ere gurekin etorri nahi zuen: *Azkenean inor ez dago diskriminaziotik kanpo*.

Zapaltzaile sentitu gara une batzuetan. *Egiteko lan garrantzitsua daukagu, besteek dituzten arazoak ulertzea eta horiek konpontzeko bideak bilatzea*. Erruduntasun mota hori dugu, eta bideak aurkitu behar ditugu energia mota hori bideratzeko. Zeharkatu dudala sentitu dut, ez neure baitan zerbait sentitu dudalako, baizik eta nire inguruan gertatu delako. Seguruenik askoz gehiagotan zeharkatuko nuen. Gehiago sentsibilizatu banintz, guztietan zeharkatuko nuen, gizakiaren zapalkuntzaren adibidearekin bezala.

Zalantza handiak izan ditut, eta horixe bizi izan dut: zalantza. *Zer neurritan sentitzen dugu diskriminazioa, niri ezartzen didaten, edo niri egiten didaten gauzatat?* Zalantza asko izan ditut neure buruarekin, zeharkatze edo ez zeharkatzearen inguruan.

Lehenbiziko dinamikan oso pozik nengoen, baina gero jarduera honetara iritsi eta oso aldaketa handia gertatu da denbora laburrean, nire barne-gogoa erabat aldatu da. Dena oso zeremoniatsua izan da. Zalantzak izan ditut, beste behin egin bagenu uste dut beste era batera jokatuko nuela.

Diskriminatuta sentitu naiz, bakarrik, baina *beste pertsona batzuek diskriminazio bera sentitu dutela eta denok batera zeharkatu dugula ikustean lasaitua hartu dut.*

Biktima izateko halako erresistentzia bat nuela pentsatu dut, eta horregatik nuen zeharkatzeko halako erresistentzia bat, zeren eta zeharkatuz gero biktimak garela erakusten genuen.

Batzuetan ez zait ezer kostatu zeharkatzea, baina beste kasu batzuetan oso gogorra egin zait. Eta oso eroso nagoen esparru bat da, baina hemen biluztearen kontua konplexua izan da. Gauza batzuk beste batzuk

baino gehiago kostatzen dira. Oso konplexua zen alde honetan egotea, zeren eta *batzuetan ikusten nuen bazitekeela nik neuk eragin izana beste aldean zeuden pertsonen sentitzen zutena.*

Dentsitate handia sorrarazi dugu jarduera honetan, mugitzeko dentsitate horrekiko lotura eten behar zen. Ukitu dramatikoak zuen, eta zentzu horretan *gogor samarra zen sentimendu mailan.*

Batzuetan gaizki sentitzen gara sentrazio hauek besteen aurrean erakusteagatik, biluzteagatik. Beharbada sentiberagoa izateagatik edo diskriminazio egoera hori ez onartzeagatik, edo desberdin, korrante nagusiaren kontra, agertzeagatik. Ez dut hainbeste ikusten miserable edo ahul sentitzeko terminoetan, baizik eta besteengandik ezartzen diren egoera horiei aurre egiteko beharraz. Desberdina naiz, eta neure burua desberdin ikusten badut hori ere baliotsua delako da, eta *nire desberdintasunetik ongi senti naiteke, eta besteei ekarpen bat egin.*

Oso interesgarria, aberasgarria, izan da *zapalkuntza desberdinen gaia maila berean lantzea. Eta ez eztabaida ideologiko gisa, baizik eta sentimendu jarduera gisa egitea;* uste dut oso aztarna sakona lagako duela. Ezkerreko kultura politikoa, ohikoa izan da bakoitzak bere eremuan lan egitea eta horri lehentasuna ematea, beste eremuei atentzioa jartzen diezu, baina maila sekundario batean utzita, eta honek

ikusgarri egiten du. Positiboa da, halaber, *geure burua zapaldu eta zapaltzaile gisa errekonozitu beharra*.

Diskriminazioaren gainean lehen pertsonan hausnartzea, beti gaiari buruzko oso analisi handia egiten dugulako, hirugarren pertsonan ordean.

Zapaltzaile rola: kontsigna guztiak “ni zapalduta sentitu naiz” ziren, eta zapaltzailearena iritsi denean, harritu egin nau. *Nire bizitzako uneren batean*, batez ere iragana hartzen badut gogoan, *bai, zapaldu dut, bai, norbait makurrarazi dut*.

Bigarren zatia: dinamikaren teknikaren inguruko gogoeta. Teknikaren ezaugarriari buruzko azalpena: isiltasunaren dramatismoa, ezin elkar ukitu, alde batetik bestera zeharkatzea, zein da honen guztiaren zentzua?, zergatik egiten dugu horrela?

Aldaketa handia dago isilik egotearen eraginez. Jasan ditugun diskriminazioak erakusteko moduak gure gogoaren barren-barrenetik garamatza diskriminazioetara, ez adimenera. Oso gauza positiboa da, ez gaudelako oso ohituta, *ideologietatik egin ohi dugu lan, ez sentimenduetatik*. Isiltasuna, beste pertsona bat ukitzerik ez izatea, gogorra izan daiteke, gogorra da.

Zein dira diskriminazioa sortzen duten elementuak? Nik talde bat diskriminatzen badut, edo guk talde gisa beste talde bat diskriminatzen badugu? Eta jende horrek jarrera bat hartzen badu, bere burua defendatzen badu, beste pertsona batzuekiko elkartasuna sortzen badu, aurre egiten dio

diskriminazio horri. Eta *pertsona batek diskriminazio horren kontra borroka egiten badu, isiltasuna behar du*, jarduera eta elementu mota hori behar du, ez du elkartasunik behar. *Norberak banakoa izan behar du, banakoa izaten zentratu, eta diskriminazioa operatiboagoa izango da*. Diskriminazioa benetan bere osotasunean erakusten duten estrategiak abian jartzen saiatzen gara. Gustatuko litzaiguke elkarri begiratzerik ez izatea, elkarri begiratzeak berekin dakar ikusgarritasun hori lortzea.

Asko errepikatzeak helburu bera du, eraginkorra izateko beste elementu bat da. *Egoera mota hori hitzaren bidez errepikatzen saiatzen gara*. Horrexegatik errepikatzen dugu diskriminatua,

zapaldua, behin eta berriro. *Denboraren kudeaketa tentsioaren arabera da.* Batzuetan 3raino eta 5eraino zenbatzen dut, eta gero itzuli egiten naiz. Baina jendea urduritu egiten da, isiltasunak giro

positibo hori ere sortzen du. Agian alde batetik bestera igarotzea. *Diskriminazioak agerian uzten du jendea, eragilea erakusten du.*

Hirugarren zatia: diskriminazioari buruzko gogoeta

Diskriminazioak osagai ideologikoa du.

Generoa: harritu egin nau emakumeen identitatean dagoen aldeak, denak pasatu direla ikusteak; konbentzimendu egoera bat da.

Erljioa: musulmanentzat, ateo garenok oso gaizki ikusiak gara, erlijioa hain dute barneratua ezen beste erlijio bat onar dezakete, kristaua esaterako, baina atea izatea sinestezina da musulmanentzat. Landa inguruetan batez ere, izugarri harritzen dira. Siria, Egipto, Jordania... herrialdeetan, diskriminazio handia jasaten dute ateoek.

Gizakia: Badirudi gizakia dela diskriminatuen dagoena, eta uste dut gizakiak gehiago diskriminatzen duela ingurumena, kontrola duena bera da. *Gizakia naizen aldetik, gehiago iruditzen zait zapaltzaile zapaldu baino.* Gizakia norbanako gisa, baina espezie gisa, nork diskriminatzen du?

Jendeak agian diru gehiago inbertituko du txakur batengan pertsona batengan baino. Gauzak pertsonaren aurretik daude. Kutzazain automatiko bat lapurtzen badut erreakzioa oso gogorra izango da. Jendearen erreakzioa gogorragoa da gauzak lapurtzen direnean, pertsona lapurtzen zaienean baino. Kaleratzeen gaiarekin are nabarmenagoa da. Gauza batzuk berezkoak zaizkio gizakiari, beraz sorburu bat dugu, leku bat, larruazaleko kolore bat, kultura bat inguruan, hizkuntza bat, sexu bat, *eta gizakiak garen aldetik ezin gara gure ezaugarrietatik bereizi.* Hizkuntza bat diskriminatuz gero, azkenean gizakia diskriminatzen ari dira. Ez da nik alda dezakedan zerbait, niri datxekidan zerbait baizik.

Ni etxetik bota behar naute zubi bat eraikitzeko. Egitura garrantzitsuagoa da, auzo horretan bizi diren pertsonak baino. Baina azpiegitura ez dator hegan nire auzoan kokatzera, beste gizaki batzuek kontrolatzen duten zerbait da. *Pertsonok diskriminazioa dugu animaliekiko,* hor harreman desberdina ikusten dut.

Azpiegiturak gizakiak ezartzen ditu, ez dira estralurtarrak etorri horiek ezartzera, beste gizaki batzuk dira hori egiten dutenak.

Naturaz hitz egin dugu, eta hemen ez dago naturarik bere burua babesteko. Ez dakit zein neurritaraino geratu behar dugun lehen pertsonan zapalduak izan garelako kontuarekin, baina kontuan hartu behar ditugu, halaber, bizipenak, esperientziak... Jarduera antropozentrikoa da... oso aberatsa da beste alderdi batzuei buruz ere hitz egitea, *zerbait egiten saiatzea naturaren irudikapena ikusgarri egitearren*.

Sorburuaren kategoriaren falta sentitzen da. Baita *larruazalaren kolorearena* ere, faktore erabakigarria da Perun. Landa inguruetatik datorren eta ahalik eta zurien izan nahi duen jendea, arrasto etniko guztiak kendu nahia, izaki gorena, zuria. Bada jarduera bat, jiratu eta ondoren “larruazalaren tonuaren arabera taldeak osatzeko”, eta 20 perutar berdin ikus ditzakezue, baina beraiek taldeak egiten dituzte, sei tonu desberdin bereiztera iritsiz... eta horiek gero ezaugarri sozialekin eta maila ekonomikoarekin lotzen dituzte. *Latinoamerikan boterearen eta desberdintasunaren gaiak estu-estu lotzen zaizkio gai etnikoari*.

Perun gaztelania da hizkuntza nagusia, eta gaztelaniaz ari garenean guk gaztelaniaren barneko *soziolekto bat hitz egiten dugu*: klase ertainarena, Limakoa. Halako

distantzia bat ezartzen da, eta botere handiagoa dugu eskualde bateko gaztelania bat hitz egiten duenak baino. Andeen inguruan badira kitxuaren eragin izugarria duen gaztelania bat hitz egiten dutenak; orduan, gaztelania hori hitz egiten dutenak behean ageri dira hizkuntzaren hierarkian. Esaterako, Andeen inguruan badira “grande había sido, ¿no?” bezalako esaerak, egiturak aldatzen dituzte, adjektiboak aurrean jartzen dituzte. Orduan berehala konturatzen zara pertsona hori “mendialdekoa” dela. Eta gero hitz egiteko doinua, oihaneko jendeak kantuan bezala hitz egiten du, eta berehala sortzen da botere hierarkia bat. Horregatik guretzat gauza gogorra izan zen denak hizkuntzaren gaian zeharkatzen zutela ikustea.

Aníbal Quijanok boterearen dekolonizazio deitzen zaion tesi hau garatu zuen, eta eztabaida handia piztu zuen, polemika handia, Iparreko bi intelektualek, Michael Hardt eta Toni Negrik, Quijanok enuntziatutako boterearen dekolonizazio kategoria erabiltzen baitute, hura ia-ia aipatzeke ordea. Eta Aníbal Quijano soziologo perutar izugarri ezaguna da, argitalpen ugari ateratakoa. Baina bestea aintzat hartzeko irekiago egon beharko lukeen segmentu horrek ere *agerian uzten du besteak pentsamendu konplexua proposatzeko duen gaitasunaren errekonozimendurik eza, beste horrek ezaugarri etniko eta bestelako jakin batzuk dituenean*.

Maskulinotasun azterketa guztietan, apenas dagoen pentsamendu feministari buruzko aipamenik, generoarekin lotutako kontuak lantzen ari badira ere.

Ezkonduta egotea, ezkontuta ez egotea, bikotean bizi izatea kategorien falta sentitzen dut, bai estatuarekiko harremanetan, bai merkatu eta gizarte mailan.

Nire kultura politikoaren barnean sinplifikatzera jotzen dugu, eslogan bat jartzearen: zuen aberastasuna gure miseria da, pobreak-aberatsak, eta “haien erruz gaude gauden bezala”... Aldiz, hemen lekuz aldatzen garenean, *nire aurrean ez dut zapaltzailerik ikusten, ez dut beste aldean zapaltzaile bat dagoen sentsaziorik*, eta horrek pentsarazi egin dit. Azkenean, zein dira haiek? batzuetan sinplifikatzera jotzen dugu, baina nik hemen ez dut horrela bizi izan.

Ez dira soilik zapaltzaileak eta zapalduak. Beste aldean ez nuen zapaltzailerik ikusten, bakar-bakarrik nik bizi izan dudana bizi izan ez duten pertsonak ikusten nituen; eta gainera diskriminazio mota honekiko sentsibilizatuta dagoen jendea dela. Eta horrek ez ditu zapaltzaileen taldean jartzen, ezta zapalduenean ere. Oso bestela, *beste zapalkuntza mota batzuekiko elkartasuna erakusten duen jendea da.*

Positiboa da *jarduerak ez bilatzea batzuk besteen kontra jartzea, baizik eta kontzientzia garatzea, eta gogoetak eragitea*, “benetan zapaldua sentitu naiz, baina nik neuk ere beste jende bat zapaldu dut edo neutroa izan naiz” gisakoak.

Beste kategoria mota bat da *ez soilik zergatik, baizik eta baita norengatik ere*. Kategoria horiek familiaren, lagunen edo laneko diskriminazioari buruzkoak ziren. Gure inguruan ustez maite dugun eta benetan maite dugun jendea dugula jakitea eta diskriminazio mota hau gertatzea oso interesgarria da. *Ez da gauza bera etsai baten kontra borrokatzea eta diskriminazio hori maite dugun pertsona bati, oso hurbileko bati gertatzen zaiola ikustea. Zailagoa da boterea identifikatzen*. Errazagoa da ‘zapaltzailea da, etsaia da’ pentsatzea, baina esparrua gugandik oso hurbileko pertsona batena denean zailagoa da. Horixe gertatzen da gure gizartean. Gizartean hartzen dugun jarreraren arabera, gizartetik kanpo edo gizartearen kontra baldin bagaude eta gai bagara sistema autonomia batez ikusteko, errazagoa da borrokatzea, baina sistemaren parte sentitzen bagara ia-ia traizioa da sistemaren kontra aritzea. Sistemaren parte dira, eta bertatik irteteko ezgai.

Euskara: diskriminatuta sentitu naiz, ez nire gaztelaniagatik, baizik eta euskaraz ez jakiteagatik. Eta ulertzen ez zaituen baina interesa duen norbait dagoen

inor kezkatzen ez den gune askotan egoten naiz. Beste gune batzuetan izugarri babestuta sentitu naiz.

Badirudi euskaraz edo gaztelaniaz hitz egitea aukera bat dela, edo borondate kontu bat. Nik biziki sentitzen dut euskararen gaia, esate baterako gaztelaniaz ez naizelako ongi moldatzen, ez dut hitz jariorik, eta izugarri nahasten naiz. Orain euskaraz esaten ari naizen hau ez nintzateke gaztelaniaz hainbeste jenderen aurrean esateko kapaz izango. Nahiko gaizki pasatu dut. Eta errealitate bat denez, *gure herrietan badago gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak dituen jendea.* Agian hain ongi ezagutzen ez den errealitate bat da. Baina euskaldunon artean bada gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak dituen jendea, gure eguneroko bizimoduan ia-ia % 100 euskaraz aritzen garelako. Baina medikuarengana goazenean, edo beste zerbitzu batzuetara, eta gaztelaniaz hitz egin behar badugu, oso une txarra pasatzen dugu, ez garelako nahi duguna behar bezala adierazteko gai...

Holandara joan eta jende guztia ingelesez hastea nik ulertzen ez dudalako, ez dakit ba... jendeak nahiago badu nederlanderaz hitz egin eta bere hizkuntza hori bada, ni ez nintzateke diskriminatuta sentituko,

Holandan nagoelako eta bere hizkuntza delako. Diskriminazioa zer den eta zer ez den ere argitu beharko litzateke.

Agian zuetako askok ez duzue hori bultzatzen, hemen gaudenok hizkuntza ikasteko beharrik ez sentitzea. Dakitenek hitz egin behar dute, ez dakigunok obligazioa izan dezagun ikasten saiatu eta ahalegina egiteko. Ni ikasten ari naiz, baina hala eta guztiz inork ez dit euskaraz hitz egiten.

2.4

Elkartasunezko aulkiak



Metodologia

Helburua: Aurretik egindako jarduerarako ixte kolektibo eta afektuzkoa sortzea. Kooperatiboaren garrantziari buruz, eredu indibidualista eta lehiakorren aurrean estrategia kolektiboak eraiki beharrari buruz gogoeta egitea.

Deskripzioa:

- Aretoaren erdian, bertan zegoen partaide adina aulki jarri ziren. Aulkien inguruan biraka ibiltzea eskatu zien bideratzaileak, esertzeko esan zien arte. Gero berriro esan zien gelditu eta aulkien inguruan bueltaka hasteko; hau gertatu bitartean, aulkiak kendu zituen, binaka, eta denei esertzeko eskatu zien. Aurreko pauso horiek errepikatu egin zituzten, harik eta denak eseri ziren hiru, bi, aulki bat geratu arte. Aulki kopuru hori ikusirik, eta esertzeko eskatu baino lehen, bideratzaileak partaideei galdetzen zien “denak aulkietan esertzea” kontsigna bete ote zezaketen.
- Osokoan gogoeta
Nola sentitu ziren?,
Zer gertatu zen?,
Erraza ala zaila izan zen denak esertzea?, zergatik?

Uste duzue uneren batean ez zaretela lehiatu, edo uneren batean sentitu duzue lehiarik ez zela izan, edo izan zela?



- Hasieran lehia izan zen, eta bultzaka konpondu genuen.
- Beno, hasieran bakoitzak bere espazioa zeukan eta horrek segurtasuna ematen zuen, gero nahasiagoa izan zen kontua.
- *Eta lagun baten hanken gainean esertzearen erosotasuna? Nola sentitu zarete? Erosoago gizonezkoa edo emakumezkoa zenean edo, besterik gabe, ez duzue bereizketarik egin?*
- Gizonezkoa: Ni eroso, gizonezko eta emakumezkoekin...
- Emakumezkoa: ni batez ere nesken gainean esertzen nintzen, gizonezkoen gainean nahiko deseroso sentitzen nintzen.
- Uneren batean, denontzat tokirik izan ez arren, ez zegoen hainbesteko alderik bakarrik egotearen edo beste batekin partekatzearen

artean, baina egoera muturrerago eramaten denean sentitzen da elkartasuna.

- Orain elkartasunezko talde bat gara, baina gizartearen egoera desberdina da, geure aldetik asko jarri genuen.

- Beste jendearen sostenguearekin egitura bizi zen, ez zen aulkia ikusten, hautsi egiten zen egitura hautsiz gero. Eutsi diogulako mantendu da, eta hori gizarte aldaketaren parte da halaber.

2.5 Cholo basketa

Metodologia

Helburua: Partaideak arratsaldeko jardueran sartzea eta murgiltzea sustatzea.



Deskripzioa:

- Partaideek biribil handi bat egin zuten, eta zenbaki bana eman zitzairen, zenbaki-segida batez. Horrela bi talde osatu ziren, zenbaki bakoitiak eta bikoitiak.
1. 1 zenbakia eta 2 zenbakia zituzten pertsonak pilotatxo bana eman zitzaizkien.
 2. Ondoren, azaldu zitzaizkien bere taldean hurrengo zenbakia zeukan kideari pasatu behar ziotela pilota. Osatutako taldeen pilotek kontrako norabidean pasatu zuten biribil osoa. Pilotaren ibilbidean zehar, beste taldeko partaideak, erdian zegoenak, pasatzea eragozten zuten.
 3. Jarduera honetarako, hainbat arau bete behar zituzten:
 - Biribiletik ez irtetea.
 - Elkar ez jotzea.
 - Pilota eroriz gero, lehen taldekideari itzuli eta berriro hasi behar pasatzen.
 4. Taldeetako batek bere pilotak buelta oso bat egitea lortu zuenean amaitu zen jarduera.

.6 Denboraren lerroak



Metodologia

Helburua: Partaideen egitate inhibitzaile eta emantzipatzaile pertsonal eta kolektiboak errekonozitzea, 2001etik orain arte. Dimentsioen arteko lotura ulertzea -pertsonala, antolaketa mailakoa eta kolektiboa-, Denboraren Lerroa irakurtzetik abiatuta.

Deskripzioa:

- *Lan pertsonala:*

Partaide bakoitzari txartel batzuk ematen zaizkio; horretan idatzi egiten dituzte bere bizitzako gertakari edo egoera adierazgarri/garrantzitsuak, bai inhibitzaileak bai emantzipatzaileak, 2001eko urtetik aurrerakoak. Gertakari bana txarteleko.

Partaideek bi gertakari inhibitzaile edo emantzipatzaile idatzi zituzten, maila bakoitzeko- pertsonala, antolaketa mailakoa edo soziala-. Gertakari bakoitzari dagokionez, izan zen urtea erregistratu zuten txartelean.

Gero, hiru denbora-lerroren aurrean (lerro pertsonala, antolaketa mailakoa eta soziala), zegokien lerroan jarri zituzten gertakariak.

- *Lantaldea DL epeen arabera:*

Taldeak egin eta denbora-lerroak epetan banatzen dira, osatu diren taldeen artean. DL bakoitzaren kasuan, partaideek:

Berrikusi egiten dituzte gertakari garrantzitsuak.

Eta hainbat erantzun ematen dituzte:

- a. Zer lotura aurkitzen dituzte berrikusitako gertakarien artean?
- b. Zer ematen dizu atentzioa?, Zer diosku berrikusiak?

- *Osokoan gogoeta:*

Talde bakoitzak bere gogoetak aurkeztu, eta gero taldeen lanei buruz hitz egiten da.

Zer gertakari inhibitzaile eta kolektibo izan dira 2001etik orain

Denbora igaro ahala gertakari gutxiago jasotzen dira. Dena 2001eko urtean biltzen da, edo une honetatik hurbileneko urteetan. Badirudi tartean ez dela gauza

askorik gertatu. 2001eko urtean dira lehengo emozio



arte?

biltzen

guztiak, mugarri bat sortzen da. *Oso ongi jasota dago egungo unea, 2006tik aurrerakoa, nola ari garen maila sozialean antolatzen eta nola dagoen zuzendu eta antolatu beharreko gauza asko.* Data horren aurretik, urte batzuek oso zapalkuntza handia erakusten dute.

Askotan aipatzen dira honakoak: kartzela, genero elementuak, egoera politikoa, egoera ekonomiko eta soziala.

Lehen taldea (2001, 2002, 2003):

Hemengo *alderdi politiko batzuen ilegalizazioei buruzko gogoeta asko* dago, eta legeztatzeen ondorioz sortu ziren taldeei eta honek guztiak bakoitzaren esparru pertsonalean sortu zituen arazoei buruz halaber: inposizio poliziala, kartzelaratzeara... Eta baita honek familien barnean eragin dituen beldur eta gatazken inguruan ere. Ez da batere erraza, arriskuan bizi diren senideak dauzkagu.

Subiranotasun nazionalaren gaiari buruzko sei-zazpi bat aipamen, eta bakarra migrazioari buruz. Gure testuinguruan ez da oso errealitate ikusgarria. Atzerritartasun Legea aipatzen da, data hauetan onartu zelako. *Migratzaileen arazoek oso pisu handia dute emakumearentzat, entitate berria, berezia*

Garrantzitsua taldeen artean harremanak sortzea da, gure kolektiboak aurrera eramatearren. Kolektibo batean elkartzea bera aldaketak egiteko eta beste batzuekin elkartzeko dugun barne beharrari erantzuteko modu bat da.

direlako. Emakumearen arazoei aurre egiteko sortu diren elkarteei buruzko aipamenak daude, eta hemengo emakume mugimenduei buruzko iruzkinak halaber.

Esparru sozioekonomikoa: iruzkin gehiago falta da esparru honetan, ez da enplegu edo etxebizitzari buruz hitz egiten, garai honetan sortu bazen ere etxegintzaren boom deitua.

Esparru pertsonala: bizimodu neoliberalaren hainbat esparruri buruzko iruzkinak: bizimodu horrekin lotutako arazoak. Gizabanakoaren barnean gatazkak daude, ez direlako eroso sentitzen sistemak oro har dituen ezaugarriekin, esaterako produktibitatearekin edo ikasi beharrarekin, gustatzen zaizuna erabaki behar duzu,

gustatzen zaizunaz ikasi behar duzu, horretan espezializatu behar duzu, horretarako apustua egin behar duzu; bikotekidea eduki behar duzu, familia nahi izanez gero. Gizarte honek homogeneousatzea eskatzen, exijitzen du. Banakakoak izan gaitezke, baina homogeneousoak izan behar dugu. Honek gatazkak sortzen ditu, *desberdin izan nahi duen pertsonak ez duelako tokirik gizartean*. Arazoak sortzen ditu famili esparruan eta kolektibo baten barnean. Herri mugimenduetan desberdintasun horrek edo ahots desberdin bat izateak arazoak sortzen ditu, edo baita ezkutatu edo norberaren sentimenduak estali beharra ere kasu batzuetan.





Oso harreman estua ikusi da bizimodu neoliberalaren eta gaixotasunen artean.



Bigarren taldea (2004, 2005, 2006):

Beste epe batzuetan desberdintasunak ezartzen dituzten mugarriak egon daitezke, baina urte hauetan ez.

Antolaketaren esparruan, bakar-bakarrik hiru erakunde aipatzen dira. Oso txartel gutxi dago, orduan interpretazio asko lerro arteko irakurketak dira, benetan jasota dagoena baino gehiago.

Generoarekin lotutako proposamen asko: esparru pertsonaletik kontzientziatziora, gai eta homosexualen bikoteak ezkontzeko eskubideraino helduz. Generoari lotutako libertateak erakusten dituzten txartel asko. Alardea aipatzen da.

Militantzia ereduaren aldaketa: kolektiboen arteko krisiak aipatzen dira, kolektiboen funtzionamendu sistemagatik. Kolektibo berriak sortzen dira.

Hirugarren taldea (2007-2008):

Ez dago harreman askorik hiru esparru edo taldeen artean.

Oso garrantzitsua da kolektiboaren, taldearen funtzionamendua. *Nork bere burua ezagutzea eta antolatu beharra esparru guztietan ageri dira*. Taldea, kolektiboa oso garrantzitsua da, helburu batera begira:

Hiru esparruak elkarrekin lotuta daude.

Gatazka politikoari buruzko aipamen gutxi, beste batzuetan mugarri gisa ageri da, desberdintasunak ezartzen diren puntutzat, baina gure kasuan continuum bat da, ez dago benetan alderik.

Internet garatzen hasi da, eta gizarte eta herri erakundeetan ere eragiten du, inpaktu garbia baitu jendearengan. Sistemak berak ere internet erabiltzen du gizarte mugimendu eta kolektiboak kontrolatzeko.

Txartelak bi multzotan bereizten dira: txartel askatzaileak, hizkuntz identitatearekin, genero identitatearekin, bakoitzak etxetik alde egitean, familia uztean garatzen duen identitatearekin lotuak. Eta genero, hizkuntza, ekonomiarekin lotutako egiturazko zapalkuntzen txartelak.

nork bere burua hobeto ezagutzera begira alegia. Izan ere, taldeak eta kolektiboak espazioa sortzen dute norberak bere burua hobeto ezagutzeko, baina espazio segurua izan behar du, denen artean zaintza harreman bat ere behar da. Beharrezkoak dira, arazoei sustrai politiko eta sozialak dituztela ikusteko. Auto-konfiantza

sortzen eta bakoitzaren gaitasunak sendotzen lagundu behar dute. Lanabesa izan behar dute, gure beldurrei aurre egiteko, eta erabateko askatasunez nahi duguna adierazteko eta komunikatzeko lekua. Pertsonen artean askatasunak lotsarik gabeko komunikazioa izan behar du, lagundu egin behar du barne gatazkak ikuspegi konstruktibo batetik bideratzen. *Gure emozioak kontuan hartu behar ditugu*, batez ere geure burua ezagutzearen. Atzeraelikadura bat sortzen da: norbera sendotu egiten da gizabanako gisa, eta horrela taldea ere sendotzen da.



Kolektiboak etengabeko aldaketan daude sartuta, eta gizartea aldatzen den neurrian gu ere aldatzen gara.

Ez ditugu militantziarako baldintza berberak, eta besteen egoera kontuan hartzeke erabakiak hartzeko arriskua dugu. Lan kolektiboan autokritika ezinbesteko lanabesa da. Eraikuntza epe horretan, autokritikak presente egon behar du uneoro. *Blokeatzea saihestu behar da. Prozesu hauek sendotzeko giltzetako bat sare kooperatiboak, aliantzak eta abar sortzea da.*

Laugarren taldea (2009-2010):

Sistema sozial eta politikoak gure bizitza pertsonalei eragiten die, eta alderantziz ere bai; horregatik, batzuetan antola gaitzke, edo ez. *Finkatze pertsonalerako lana finkatze kolektiborako lana bezain garrantzitsua da.* Konbinatu egin behar dira lan pertsonalaren modalitatea eta antolaketa eta ekintza modalitate kolektiboa.

Gatazka, bazterketa eta krisia, gaixotasun mentalen sortzaile, antsietate sortzaile. Banakako estrategiak, erakunde estrategiak eta estrategia sozialak garatzea. Kolektiboen barnean barne gatazkak daude, eta horiei barne mailan ekin behar zaie. Erakundeen artean

estrategiak gara ditzakegu, sare bidez, arazo komunak elkarrekin konpondu. Desberdintasunak hainbeste eztabaidatu beharrean, *diskurtso komuna behar da, eta eragiten diguten arazo komunak elkarrekin konpondu. Ados jarri alegia, ados gauden gauzetan.*

Kolektiboa parteen batura baino gehiago da. Ildo honetatik lan pertsonala garrantzitsua da, badira kontsentsura iristeko tresnak. Talde bakoitzean auto-ikasketa lana beharrezkoa da, aurreiritziak gainditzea gure mugimenduak zer diren jakinda.

Bosgarren taldea (2011-2012):

Maila pertsonalean, jendeak izan dituen arazoak krisiaren ondorio izan dira. Eskubideen urraketa ageri da, esparru feministako arazoak, kolektibo batzuek ez dute inolako errekonozimendurik eta horren ondorioz komunitateen artean elkartasun falta gertatzen da. Askatze pertsonaleko kasuak izan dira; askatze horrek esparru politikoan ere jardun nahi duten modu berean eragiten du bizitza pertsonalean. *Bizitza pertsonalean egiten dugun guztiak garrantzia du, halaber, maila politikoan.*

Antolaketaren esparruan, *militantzia ereduari* buruzko gogoetak ageri dira: jendea nekatu egiten da, ahitu eta

Garatu beharreko jakintzak: geure burua ezagutaraztea, prozesu bidezkoak ahalbidetzea, sare sozialak sortuz jakintza trukea, elkarriketak eta komunikazioa eta gatazken konponbidea garatzeko.

Mugimendu eta agenda elkarriketa, eta baita arazoengatik ere. Taldeen barnean, kolektiboen barnean gauzak konpontzen saiatzea, elkarriketarako bitartekariz, autonomiak errespetatuz akordioak lortzearen.

Gai neoliberal, sozial eta politikoak eragina du gure ongizate sozial eta pertsonalean, eta alderantziz.

erre kolektibo batzuetan, antolaketa ereduagatik, batzuk diskriminatuta sentitzen dira. Kasu batzuetan, kooperatiba moduko batzuk antolatzeko ahalegina egin da toki esparruan.

Ezker abertzalearen legeztatzea agertu da, hauteskundeetan izan duen partaidetza, ETaren arma bidezko bortizkeriaren amaierarekin batera.

Plano guztiak oso lotuta daude elkarrekin, esparru pertsonaleko arazoak lotuta daude antolaketa eta egitura esparruekin, eta gai izan behar dugu ikusteko *borroka sozialen atzean arazo pertsonalak ere badaudela*.

Herri mugimenduen antolaketa: elkarren artean hierarkiak ezartzen dituzte, *lanabesak jarri behar dira erakundeak elkarrekiko horizontalak izan daitezen*. Kolektiboen barnean gogoeta egin behar da funtzionatzeko moduari buruz. Etsaiaren lanabes berberak erabil daitezke, guk geuk erabil ditzakegu alegia. Garrantzitsua da nola funtzionatzen dugun ikustea eta arazo paradoxiko eta kontraesankorrak identifikatzea. Krisialdiaren aurrean oso egoera

pertsonal larriak erakusten dira, jendea zapalduta sentitzen den egoerak, baina aldi berean honek ahalbidetu du espazio batzuk sortzea toki esparruan, jendearen mobilizazioan ere pausoak egiteko. 2011 eta 2012an gatazka politikoarekin lotutako post-ak daude, eta beste alde batetik krisiarekin ditugun arazoak ageri dira, bai krisiak ematen dituen aukerekin bai finkatzen dituen inposizioekin lotuak; egoera kontraesankor honek antolaketan eta esparru pertsonalean eragiten du.

Zerk egiten du egoera bat zapaltzaile edo askatzaile? Maila pertsonalean, eta talde gisa, subjektibotasunez egiten da lan, eta horrek ekarriko digu egoera bat modu zapaltzailean edo askatzailean bizi izatea.

Osokoan gogoeta

Migrazioak: Aldundiarekin alde handiak, tratamendu desberdina ematen dielako Euskal Herritik kanpo eta hemen bertan jaio diren pertsonen. Immigrantek hemen gizarte diskriminatzailea bizi dute, batez ere osasunaren esparruan. Errenterian eta Beasainen (Gipuzkoa) immigranteentzako lokalak ireki nahi izan genituen, eta herritarrak kalera atera ziren manifestazioan, ekimen horren kontra. Oztopo

handiena administrazioa da, arrazistak diren langileak daude, batzuetan ez zaio osasun txartela ematen pertsona immigranteari, gurasoek berek eraman behar dituzte haurrak ospitalera, bere baliabideak erabilita, anbulantzia batean eraman beharrean. *Administrazioa oso arrazista da eta ez du bere lana betetzen*. Hona datorren jendea oso pozik dago espainiar estatuko

beste toki batzuetan baino askoz hobeto tratatzen dituztelako.

Iaz ahalegina egin genuen immigranteek Goierri osoko, eskualde osoko herrietako festetan parte har zezaten. Egoera desberdina da toki bakoitzean. Gure eskualdean ikusi genuen ezinezkoa zela horrelako jarduerarik antolatzea.

Ikuspegi psikosoziala: 2000ko urtetik aurrera tentsio asko sortzen hasi dira. Orduan bakar-bakarrik euskal kultura eta hizkuntzarekin lotutako gaiek zuten garrantzia. *Denbora bat igarota hasi ziren ikusten ilegalizazioek emozioen ikuspegitik dituzten ondorioak,* lehen bakar-bakarrik gai intelektual edo politikoak ziren. Urte batzuk igaro ondoren, zure semea edo alaba preso egon delako edo torturatu dutelako gaiekin lotzen hasten da, esaterako. Psikologoak familiaren arazoak lantzen ari dira.

Bestea, su-armen “ondorengoa”, eta gero krisiaren gaia, horiek guztiek nola eragiten diguten denoi, eta *lehen aldiz nola ari garen elkartzen kolektiboak, elkarrekin inolako zerikusirik izan ez arren.* Krisiak elkartzen gaitu. Lehen arrazoi politikoak zirela eta talde batekoa zinen, eta ez zenuen besteekin harremanik. Psikologia sozialetik ere, euskal kulturaren defentsaren gai honekin lagundu nahi izan genuenean ateak itxi zizkiguten hainbat erakundetan eta beste zenbait tokitan. Adin, erlijio sinesmen, kultura eta

kolektibo desberdinak elkarrekin lan egiten ari gara hasten, *horregatik arreta berezia jarri behar da gure kolektiboen barnean bizitzen ari garen arazoak konpontzeko.*

Oso gizarte mugimendu desberdinak gara. Zer unetan gauden ulertzeko lana egin behar da. Nola egin dezakegun lan elkarrekin. Hemen gaudenok sistemaren kontra gaude, eta Euskal Herritik eraldatu nahi dugu. *Elkartzen gaituzten gauza asko daude, eta horretatik gauzak egin ditzakegu.*

Norbera maila pertsonalean garatzen da kolektiboan, *kolektiboa espazio segurua da askatasuna ateratzen ahal izan dadin eta garapen pertsonal hori bultzatu ahal izateko.* Krisiak aurrez aurre jartzen gaitu, eta elkarrekin lanean murgilarazten. Elkar ezagutzeko komunikatzen ahalegintzen ari gara. Kolektiboen sare sozial bat behar dugu, elkarri lagundu ahal izatearren. *Bakoitzak bere espazioan egin dezakegu lan, baina elkarrekin.*

Dinamikari buruz: Oso denbora gutxian gure herrialdearen, gure herriaren oso irudi garbia egin da, alderdi positibo eta negatiboz.

Konklusioak:



Egungo gizartean herritarren auto-antolaketak funtsezkoa izan behar du. Ekimen hauek oso garrantzitsuak dira komunitate gisa pentsatzeko. *Euskal Herrian eztabaidaren kultura garatu behar dugu, jendeari eragiten dioten gaiak eztabaidatu.* Horretarako bi elementu daude: mintzaldiak erabat librea izan behar du, inolako aurreiritzirik gabe, eta erabateko errespetua izan behar da bestearen adierazpenekiko. Azken 30 urteotan oso prozesu gogorra eraman dugu diskriminazioaren,

zapalkuntzaren kontra. Auto-antolaketa oso aberasgarria da.

Orain arte desberdintasunez aritu gara batez ere, baina orain *puntu komunez aritzeko unea da*, ikuspegi desberdinak izan arren. Oso une berezia da, oso garrantzitsua, eta eskerrak eman nahi nituzke. Gai batzuk berriak ziren niretzat, eta horrek indarra ematen dit. *Kolektibook ezagutzen ditugu beste kolektibo batzuetako kideak, eta hori oso aberasgarria da.* Honek aurrera segitzea gustatuko litzaidake, hemen ez geratzea. Jende gehiago elkartzea behar dugu, kontua ez da denok homogeneousatzea, baizik eta gure artean harremanak jorratzea. Proposatuko nuke bakoitzak pentsatzea zer harreman ezar ditzakegun, egin behar ditugun pausoak pentsatu behar ditugu, zer lan mota, jarduera edo metodologia gara dezakegun jende gehiago erakartzeko.

Dagoeneko hemen gauden pertsonon arteko harremanak finkatu behar ditugu, beti kanpora begira egon beharrean, jende bila, barnerantz begiratu beharko genuke, eta dagoeneko hemen gaudenon artean harremanak egin.

Asko begiratzen diogu geure zilborrari, herri mugimenduei, *mugimenduen barnean zer aldatu nahi dugun* pentsatu beharrean. Gehien kezkatzen gaituzten mugimendu sozialen diagnostiko bat egin

beharko genuke, eta kontuan hartu jendeak kolektibo horiei buruz pentsatzen duena. Batzuetan ere jendeaz gaizki esaka aritzen gara, eta geure buruari buruz, berriz, egoki hizketan, eta horri buelta eman beharko genioke... pentsatu zer irudi duten gutaz eta beste kolektibo batzuei ez galdetu nola ikusten gaituzten, zeren eta *herritarrei galdetu behar baitzaie nola ikusten dituzten kolektiboak*. Hori kolektibo popularrentzat oinarritzko jarduera da, kolektibo gisa ditugun joerak aztertzea.

Jendea konbentzitu behar dugulako mentalitate hori izan beharrean, *gure mugimenduak ireki eta gu denon arteko harremanak finkatu beharko genituzke*. Herritarrei zabaldutako egitura baldin badugu, esan egingo digute 'hau ondo egiten duzu, hau gaizki' etab.

